# IRAGARKIAK

## Beste iragarki ofizial batzuk

### EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

### 586

*IRAGARKIA, 2024ko urtarrilaren 26koa, Industria Administrazioaren Bizkaiko lurralde-ordezkariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita «BESS Lajara» izeneko proiektua Güeñesko udal-mugartean (Bizkaia).*

Jendaurrean jartzen da aurretiko administrazio-baimena eskatu zaion instalazio elektrikoa, martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuan xedatutako ondorioetarako (2020-04-24ko EHAA) –dekretu horren bidez arautzen baitira energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak– eta Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53. artikuluan (2013-12-26ko BOE) xedatutakoarekin bat etorriz.

Espedientea: 48-GE-Y-2023-00036.

– Eskatzailea: BESS Development 2 SL.

– Kokapena: Güeñesko udal-mugartea.

– Exekuzio-materialaren aurrekontua, guztira: 21.790.805,61 euro.

– Helburua: baterien bidez energia biltegiratzeko sistema berria jartzea, bertan dagoen 30 kV-ko sarera konektatuta.

– Instalazioaren ezaugarriak: Ignacio Olabarri Lasa industria-ingeniariak 2023ko abenduan sinatutako proiektuan adierazitakoak, espedientean daudenak.

– Eskaeraren helburua: aldez aurreko administrazio-baimena.

Eta hori guztia argitara ematen da nornahik proiektua azter dezan sail honen Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan (Concha Jeneralaren kalea 23, 5. solairua, Bilbao), dagokion udaletxean edo url honetan: https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/

Egokitzat jotzen diren alegazioak bi aletan aurkeztu beharko dira Lurralde Ordezkaritzan, hogei eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2024ko urtarrilaren 26a.

Industria Administrazioaren Bizkaiko lurralde-ordezkaria,
MARÍA JESÚS MARKAIDA URIARTE.